

## Irakurketa aditua: BELDARTXO LAGUNKINA

### Zer jiten zaizue gogora irakurtzen duzuelarik?

Koloreei esker ipuina alaia da.

Marrazkiek goxotasun bat ekartzen dute.

Ulergarria da: esaldi sinpleak, elkarriketetan errepikatzen den egitura. Anitz marrazkirekin. Marrazkiak ipuina hobeki ulertzeko gisan eginak dira.

Kolore urdina eta berdea (hotzak) nagusi, lorea agertu arte. Ondotik, gorria nagusitzen da lorea irekitzen delarik. Lorea = laguna.

### Denbora

<b>Testuan</b>	Egun, bere denbora guzia, beti, orduan, ondotik, udaberria, egun eguzkitsua, udaberria, eguzkiak berotzen du eta goxo da kanpoan egotea, orain, beti.
----------------	---

<b>Irudian</b>	Larrazkenetik udaberri arte.
----------------	------------------------------

Saso bat; izigarri kronologia argia.

### Espazioa

<b>Testuan</b>	Pentze batean, belar luzeen artean, belarren artetik, urrunago (3 aldiz), zuhaitz baten gainean, adar luze baten puntaraino, hantxe berean, kuskuaen barnean, adarraren azpian, kuskuaen barnetik, kanpoan, bata bestearen inguruan.
----------------	--

<b>Irudian</b>	Zeru urdina, belar berdea, zuhaitz bat.
----------------	---

Espazio ttipi bat, pentze bat, zuhaitz batekin.

Espazioa marmutxa horien neurrikoa, beren bizilekua.

	<b>Pertsonaien deskribapena</b>	<b>Pertsonaien sentimenduak</b>	<b>Ekintzak</b>
<b>Testuan</b>	Katalingorri ederra. Xinaurri beltza. Ipurtargi argitsua. Lili polita eta koloretsua. Pinpirina handiagoa eta ezin	Beldartxoak maite du belarrean ibiltzea: zein aise ibiltzen den. Gustukoak ditu hosto berdeak. Aspertua da. Tristeki.	Beldartxoak arroltze ttipi-ttipi batetik aterata da. Belarren artean ibiltzen da. Denbora guzia jaten iragaten du. Topatzen dituen pertsonaiei

	<p>ederragoa.</p>	<p>Negarrez hasten da. Plazer handia egiten didazu. Testua: aspertua da. “Lagun bat aurkitu behar dut enekin jostatzeko !”, ari da bere baitan. “Zinez marmutxa horiek ez dira enekin zintzoak! Nik ere nahi nuke izan dotore, eder eta dirdiratsu!”, pentsatzen du beldartxoak bere baitan tristeki. “Negarrez hasten da gaixoa: “Nehork ez du enekin jostatu nahi. Ezin dut bakarrik jostatu! Hola baldin bada, ene xokoan egonen naiz eta kito.” Pinpirina biziki alaiki bizi da, ez da sekula triste.</p>	<p>galdera bat pausatzen die. Arbola baten gainera igaten da eta han gordetzen. Lili bat sortzen da eta handitzen. Oihukatzen du.</p>
<b>Irudietan</b>	<p>Pertsonaiak: Beldartxo. Katalingorri ederra. Xinaurri beltza. Ipurtargi argitsua. Kuskua. Lili bat: polita, koloretsua. Pinpirina.  Beldartxo pertsonaia polita, irriño batekin sortzen da.</p>	<p>Beldartxo pozik sortzen. Pozik ibiltzen. Ipurtargia topatzean, ez da kontent. Triste da, negarrez ari da. Loreak irriñoa du ezpainenetan. Begi handiak irekitzen ditu. Kontent da beldartxoarekin izatea.</p>	<p>Beldartxo arroltzetik ateratzen da. Hostoak jaten ditu. Lagun bat ukaitea amesten du. Animaliak topatzen ditu. Arbolaren gainera igaten da. Gordelekua antolatzen du. Lilia handitzen da eta irekitzen.</p>

	<p>Katalingorria borobila, distiranta. Xinaurri beltza, begi handiekin. Ipurtargi marroia, buztana. argitsuarekin, ez ederra. Ikusten da lorea handitzen ari. Lore gorri handi bat. Pinpirin eder bat.</p>		
<b>Ororen buru</b>	<p><b>Desberdintasuna, laguntasuna lantzen duen albuma.</b>  <b>Beldartxoak lagun bat xerkatzen du.</b>  <b>Haurrek ezagutzen duten egoera: eskolan, kanpoko tenorean ikasleen artean gertatzen diren kalapitekin parekatzen ahal da.</b>  <b>Ipuin ulergarria: orrialde bakoitzean irudiek testuaren ulermena laguntzen dute; errepikatzen den egitura.</b></p>		
<b>Xantal Barnetxe idazlearen iritzia</b>	<p>3 ardatz: hizkuntza + elkarbizitza + munduaren deskubrimendua.  Pista orrokora: - nola lor haurren arteko komunikazioa? Kanpoko tenorean agertzen diren egoerak: “Nahi duzu enekin...” “Ez...”,  - nola munta istorio bat? Animalien bidez,  - gertakariz gertakariko kontakizuna.  1 – Irudi guziak erakuts marmutxan hiztegia lantzeko + <i>Kim</i> jokoa.  2 – Irakurketa kuskua arte.  3 – Irudi bat erakuts eta egitura bat lant: rol-joko bat egin, “Nahi duzu enekin jostatu?”, “Ez... -egi zara”.</p>		